



Irakurketa Errazean

Emakumeen Nazioarteko Eguna. Desberdinkeria errealitate, justizia lortzeke.

Dokumentu honetan
Nafarroako toki eta lurralde entitateek
eta berdintasunaren arloan
lan egiten dugun profesionalak,
emakumeen egunean
mezu argia eman nahi dugu.

Dokumentu hau martxoaren 8rako idatzi dugu,
hau da, Emakumeen Nazioarteko Egunerako.

Nafarroako toki eta lurralde entitateak

Nafarroako gai publikoak
kudeatzen dituzten entitateak dira,
adibidez, udalak.

Genero berdintasuna

emakumeok eta gizonok
eskubide berberak ditugula da.



Gure mezua:

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna
oraindik ez da benetakoa
eta hau gizarteko pertsona guztien artean
landu behar dugu.

Legeek berdintasunari buruz hitz egiten dute baina hau ez da betetzen. Emakumeek zailtasun asko dituzte beren egunerokotasunean eta gizonek baino askoz ere lan gehiago egiten dute.

Nafarroan gai honi buruz datu garrantzitsu batzuk daude:

- Emakumeek gizonek baino diru gutxiago irabazten dute, gizonek izaten dituzten lanetan diru gehiago irabazen delako, adibidez, enpresa bateko zuzendaria direnean.
- Emakumeek gizonek baino diru gutxiago irabazten dute lanpostu berdinetan. Hau da, gizon batek 100 euro irabazten baditu, emakume batek 80 euro irabazten ditu lan bera egiteagatik.
- **Lanaldi partzialekoak** diren lan gehienak emakumeek egiten dituzte. Horrek esan nahi du, batez ere emakumeak direla lanaldi osoak **ez** dituztenak. Hau etxean lan egin behar dutelako gertatzen da, adibidez, seme-alabak zaintzen.
- Emakumeek etxeko lanak egiten gizonek baino 2 aldiz denbora gehiago ematen dute. Horregatik beren lanak okerragoak dira eta okerrago bizi dira beren egunerokoan.



- Batez ere emakumeek egiten dituzten lanek baldintza okerragoak dituzte, adibidez, diru gutxiago irabazten dutelako eta ordutegi okerragoa dutelako. Adibide bat, adinekoen egoitzetan lan egiten duten emakumeak dira.

Gainera, borondatez egiten diren lanak, adibidez, familiako norbait zaintzea, ia beti emakumeek egiten dituzte. 1960ko hamarkadatik aurrera mugimendu feministak dio oso garrantzitsua dela hau aldatzea.

Egoera hauek guztiak larriagoak dira emakumea migratzailea denean, desgaitasuna duenean edo LGTBIQ+ kolektiboko kidea denean.

LGTBIQ+ kolektiboan pertsona homosexualak, transexualak, bisexualak eta beste batzuk daude.

Nahitaezkoa eta oso beharrezkoa da gizartea aldatzea eta emakume guztiek egiten duten lana aintzat hartzea eta balioestea.

Zer egin behar du gizarteak hau guztia lortzeko?



- **Erantzukidetasuna sustatzea,**
hau da, gizonen eta emakumeen zereginak
gizonek ere egitea
eta ez emakumeek bakarrik.
Adibidez, etxea garbitzea edo janaria prestatzea.
- **Lege berriak egitea**
berdintasunari buruz dauden legeak bete daitezen.
- Gizartean berdintasuna egon dadin
dauden oztopoak edo zailtasunak ezabatzea.

Gizartean albiste faltsuak daude.

Albiste hauek berdintasuna lortu dugula diote.

Ideia hauek gezurra dira.

Enpresei, erakundeei

eta orokorrean gizarteko pertsona guztiei

berdintasuna lortzeko lan egitea eskatzen diegu.

Nafarroako toki eta lurralde entitateek honako hau egiteko konpromisoa hartzen dugu:



- Erantzukidetasunaren garrantziari buruz
gizartea sentsibilizatzeko
programak eta kanpainak egitea
eta horiek abian jartzea.
Gogoratu **erantzukidetasuna**
gizonek eta emakumeek diren lanak
gizonek ere egitea dela,
eta ez emakumeek bakarrik egitea.



- Kanpaina horietan desgaitasuna duten emakumeak, emakume migratzaileak eta LGTBQ+ kolektiboko emakumeak kontuan hartuko ditugu.



- Gure toki eta lurralde entitateetan gizonak eta emakumeak lan bera egiteagatik diru bera irabazten duten berrikusiko dugu. Era berean, kontratuak eta beste lan akordio batzuk, emakumeentzat bidezkoak izan daitezzen nahi dugu, batez ere, gizonak baino emakume gehiago dauden lanetan.

- Egiten ditugun **politika publikoak*** emakumeak dirurik irabazi gabe egiten dituzten lanak kontuan izatea eta lan horiei balioa ematea nahi dugu. Adibidez, emakume batek familiako norbait zaintzen duenean, eta horregatik dirurik kobratzen ez duenean. Horrelako lanak oso garrantzitsuak dira bizitzarako eta zaintzak jasotzen dituzten pertsonentzat.

Politika publikoak*

governuak pertsonen eragiten dieten arazoak konpontzeko hartzen dituen erabakiak eta ekintzak dira.

Gainera, pertsona guztientzat zerbitzu publiko gehiago egotea nahi dugu.

- Gure erakundeetako profesional guztiei genero-berdintasunean oinarritutako prestakuntza ematea. Prestakuntza honekin erabakiak hartzen direnean eta politika publikoak egiten direnean pertsona guztiek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna kontuan hartuko dutela ziurtatu nahi dugu.



- Talde feministek egiten duten lana aitortzea eta baloratzea.
Talde feminista hauek antolatzen dituzten ekitaldi eta kontzentrazioetan parte hartu nahi dugu.



Gure ustez, ekintza hauek guztiek Nafarroan berdintasun handiagoa egon dadin eta Nafarroa feministagoa izan dadin, hau da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egin dezan lagunduko dute.

Laburbilduz:

Garrantzitsua da emakumeek gizartean eta beren bizitzan gizonen baldintza berdinetan parte hartu ahal izatea,

Texto adaptado y validado por la Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra de ANFAS

Logo europeo de lectura fácil: "© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe. Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

oacna
Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra

anf
anf

Plena inclusión
Navarra



Nork babesten eta ematen du dirua dokumentu hau egin ahal izateko?

Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Gobierno de Navarra



Nafarroako Gobernua



PACTOS POR LOS CUIDADOS EN NAVARRA
ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK NAFARROAN